

## Euskadin atzerriko gazteen kopurua bikoiztu egin da

Hau da 15 eta 29 urte bitarteko etorkinen artean sarrien aurki daitekeen profil: mutila, 25 eta 29 urte bitartekoa eta Amerikatik etorria



Euskadin erroldatuta dauden atzerriko biztanle gazteak 24.274 dira, 2005eko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldaren datuen arabera. Datu horiek 2001eko erroldakoekin alderatuz gero, etorkin gazteen kopurua bikoiztu egin dela egiazta daiteke

Gazte etorkinak Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 6 dira. Etorkin gazteen artean, mutilak pitin bat ugariago dira neskek baino (% 50,6 eta % 49,4, hurrenez hurren)


Gazte etorkinak hiru lurralde historikoetan banatuta dauden moduari bagagozkio, erdia baino gehiago (% 51) Bizkaian bizi direla antzeman daiteke; Gipuzkoan % 28,7; eta Araban % 20,3

Arabian etorkin gazteak 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 8 dira; Bizkaian eta Gipuzkoan, % 6 inguru. Neska etorkinak Bizkaian ugariago direla baieztatu daiteke, mutilen kopuruarekin konparatuta

Atzerriko nazionalitatea duen eta EAEn erroldatuta dagoen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 2001-2005				
	2001		2005*	
<b>EAE</b>	<b>10.687</b>	<b>100</b>	<b>24.274</b>	<b>100</b>
Gizonezkoak	5.302	49,6	12.277	50,6
Emakumezkoak	5.385	50,4	11.997	49,4
<b>Araba</b>	<b>2.216</b>	<b>20,7</b>	<b>4.979</b>	<b>20,5</b>
Gizonezkoak	1.178	53,2	2.670	53,6
Emakumezkoak	1.038	46,8	2.309	46,4
<b>Bizkaia</b>	<b>5.442</b>	<b>50,9</b>	<b>12.334</b>	<b>50,8</b>
Gizonezkoak	2.585	47,5	6.029	48,9
Emakumezkoak	2.857	52,5	6.305	51,1
<b>Gipuzkoa</b>	<b>3.029</b>	<b>28,3</b>	<b>6.961</b>	<b>28,7</b>
Gizonezkoak	1.539	50,8	3.578	51,4
Emakumezkoak	1.490	49,2	3.383	48,6

Iturria: Eustat eta bertan egina  
\* Biztanleen udal erroldaren ustiapena, INE eta Eustat

2005eko datuek aditzera ematen duten bezala, etorkin gazteak adin-talde altuenetan pilatzen dira. Izan ere, gazteen erdiak 25 eta 29 urte bitartekoak dira; % 32,4 20 eta 24 urte bitartekoak; eta % 16,9 15 eta 19 urte bitartekoak. Egoera hori berori hiru lurralde historikoetan antzeman daiteke



Iturria: Biztanleen udal erroldaren ustiapena, INE eta Eustat

2001eko zentsuko datuek diotenez, Amerikatik datozen etorkinen kopuruak gora egin du. 2005ean egoera horrek horrela dirau eta, izatez, gazte etorkin gehienak Amerikakoak dira. Horrenbestez, Euskadin, gazte etorkinen erdiak jatorriz amerikarrak dira; % 23,1 europarrak; eta % 20,7 afrikarrak



Iturria: Biztanleen udal erroldaren ustiapena, INE eta Eustat

Sexuak eta jatorrizko kontinenteak aztertuz gero, Europatik, Asiatik eta Afrikatik datozen etorkin gazte gehienak gizonezkoak dira, baina aldeak hauteman ditzakegu: afrikarren artean, mutilak % 70,6 dira; asiarren artean, % 63; eta europarren artean, aldiz, % 53,2. Aitzitik, Amerikatik datozen etorkin gazteen % 60 neskek dira

Gazte etorkinen jatorriaren banaketa, lurralde historikoei dagokienez, antzekoa

da Euskadi osoan, Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban, aldiz, Afrikatik datozenak bigarren etorkin talde nagusia dira (% 31)

Atzerriko nazionalitatea izanik, EAEn erroldatuta dagoen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria, jatorriko kontinentearen eta sexuaren arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 2005								
	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
<b>Guztira</b>	<b>24.274</b>	<b>100</b>	<b>4.979</b>	<b>100</b>	<b>12.334</b>	<b>100</b>	<b>6.961</b>	<b>100</b>
<b>Europa</b>	<b>5.636</b>	<b>23,1</b>	<b>1.096</b>	<b>22,0</b>	<b>2.517</b>	<b>20,3</b>	<b>2.023</b>	<b>28,9</b>
Gizonezkoak	2.999	53,2	612	55,7	1.290	51,2	1.097	54,2
Emakumezkoak	2.637	46,8	484	44,3	1.227	48,8	926	45,8
<b>Amerika</b>	<b>12.315</b>	<b>50,7</b>	<b>2.065</b>	<b>41,6</b>	<b>6.822</b>	<b>55,2</b>	<b>3.428</b>	<b>49,2</b>
Gizonezkoak	4.914	40,0	830	40,2	2.650	38,9	1.434	42,0
Emakumezkoak	7.408	60,0	1.235	59,8	4.172	61,1	1.994	58,0
<b>Asia</b>	<b>1.292</b>	<b>5,4</b>	<b>270</b>	<b>5,4</b>	<b>689</b>	<b>5,6</b>	<b>333</b>	<b>4,9</b>
Gizonezkoak	811	63,0	188	69,9	394	57,3	229	69,2
Emakumezkoak	481	37,0	82	30,1	295	42,7	104	30,8
<b>Afrika</b>	<b>5.007</b>	<b>20,7</b>	<b>1.546</b>	<b>31,0</b>	<b>2.295</b>	<b>18,8</b>	<b>1.166</b>	<b>16,8</b>
Gizonezkoak	3.534	70,6	1.039	67,3	1.685	73,2	810	69,5
Emakumezkoak	1.473	29,4	507	32,7	610	26,8	356	30,5
<b>Ozeania</b>	<b>21</b>	<b>0,1</b>	<b>0</b>	<b>0,0</b>	<b>10</b>	<b>0,1</b>	<b>11</b>	<b>0,2</b>
Gizonezkoak	17	76,9	0	0,0	9	90,9	8	69,2
Emakumezkoak	4	23,1	0	0,0	1	9,1	3	30,8
<b>Aberrigabeak</b>	<b>3</b>	<b>0,0</b>	<b>2</b>	<b>0,0</b>	<b>1</b>	<b>0,0</b>	<b>0</b>	<b>0,0</b>
Gizonezkoak	2	50,0	1	50,0	1	100	0	0,0
Emakumezkoak	1	50,0	1	50,0	0	0,0	0	0,0

Iturria: Biztanleen Udal Erroldaren Ustiapena, INE eta Eustat

#### Erlazionaturiko datu taulak:

[1. taula](#) (pdf, 19 kb)

[2. taula](#) (pdf, 25 kb)

[3. taula](#) (pdf, 26 kb)

#### Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)